



# **DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA**

## **JARRAIPEN TXOSTENA 2020/2021**





# **DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA**

## **JARRAIPEN TXOSTENA 2020/2021**



<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. JORRATUTAKO NEURRIAK</b>	<b>4</b>
<b>3. GAKOAK-MUGARRIAK: ARRISKUAK ETA AUKERAK</b>	<b>25</b>

## 1. SARRERA

2020ko urriaren 20an Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana onartu zen Tokiko Gobernu-Batzarrean. 2022-2024 eperako indarraldia du Planak, eta 4 esku-hartze ardatz eta 8 proiektu-emaitzetan dago antolatuta. Ardatz bakoitzean aurreko planetan bultzatutako neurriak jaso dira baita ere, hau da, Udalaren dinamikan txertatuta daudenak, baina bultzatzen eta lantzen jarraitu behar direnak.

ESKU HARTZE ARDATZAK	PROIEKTU-EMAITZAK	+ TXERTATUTAKO NEURRIAK
GOBERNU ONA	1. AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK 2. IKUSPEGI INTERSEKZIONALA 3. PLANAREN IRAUNKORTASUNA	
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	4. EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA 5. DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	6. ERABATEKO PREBENTZIOA 7. ERREPARAZIO INTEGRALA	
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	8. KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	

Proiektu horietako bakoitzari begira helburu-azpiproiektuak eta neurriak zehazten ditu Planak. Urtero dagokion urtean landuko diren neurriak prestatzen dira, eta horiek garatzeko ekintza zehatzak finkatzen dira.

Planaren ezarpena 2020. urtearen amaieran hasi zen eta 2021a izan zen Plana ezarri zen lehen urte osoa. Txosten honen helburua IV. Planaren neurrien eta proiektu-emaitzen gauzatzeko maila aztertzea da, 2020ko urritik 2021eko abendura. Pandemiaren eraginak markatutako garaia izan da, eta maila mikroan, berdintasunerako plana martxan jartzeko, emakumeen etxeko arreta eta kudeaketa lanak egiteko giza baliabidegabezia egon da; honek eragina zuzena izan du Berdintasunerako Plana aurrera eramateko.

Planaren jarraipenari dagokionez, 2021ean ez zegoen jarraipen tresnarik indarrean, Midenet aplikazioa garatzen ari zelako. 2022tik aurrera planaren ezarpenaren jarraipena erraztuko duen aplikazioa izango da Midenet.

## 2. JORRATUTAKO NEURRIAK

Ardatzez ardatz, proiektu-emaiza bakoitzean burututako neurriak jaso dira, eta baita txertatuta dauden neurrien jarraipena ere.

### ESKU-HARTZE ARDATZA: GOBERNU ONA

#### 1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK

Proiektu honek 11 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektuetan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 8 neurriari heltzea. **Aurreikusitako 8 neurrietatik 5 jorratu dira (%62,5).**

JARRAIPENA	BERDINTASUNA, ERABAKIAK HARTZEKO ALDAGAI BAT	AURREKONTUEN ANALISIA, GENERO IKUSPEGITIK	BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GIZA BALIABIDEEN POLITIKA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	<p>1.1. Proposamen metodologikoa egin udal arlo, enpresa eta erakundeek dituzten berdintasunerako ekintza estrategikoenak kudeaketa planean nola sartu lantzeko.</p> <p>1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.</p>	<p>1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.</p>	<p>1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea.</p>
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	<p>1.4. Udaleko Planetan berdintasun ikuspegia txertatzea.</p>	<p>1.6. Aurrekontu programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik.</p> <p>1.8. Kudeaketa-planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea.</p>	
2020-2021ERA KO PLANIFIKATU GABEA	<p>1.5. Kontratazio publikoan sartutako berdintasun klausulen betetze mailaren jarraipena egitea.</p>	<p>1.9. Aurrekontuko diru-sarrerak aztertzen hastea.</p> <p>1.10. Aurrekontu-programak aztertzean hautemandako desberdinkeriak gaunditzeko neurriak proposatzea.</p>	

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1.1. Proposamen metodologikoa egin udal arlo, enpresa eta erakundeek dituzten berdintasunerako ekintza estrategikoenak kudeaketa planean nola sartu lantzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketa Plana eta Berdintasunerako Plana uztartu da.</li> <li>• Kudeaketa planetan berdintasun ekintzak txertatzeko hausnarketa lana egin da.</li> <li>• Musika eta Dantza Eskolak bere Kudeaketa Planean Berdintasuna txertatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Lehendakaritza</li> <li>• Musika eta dantza eskola</li> <li>• Ingurumena</li> <li>• Euskara</li> <li>• Lagunkoia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 lan-saio</li> </ul>
1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzu-gutunetan berdintasun ikuspegia txertatzeko <i>checklist-a</i> egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Lehendakaritza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0 zerbitzu gutun aztertuak</li> </ul>
1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diseinu metodologikoan Berdintasun unitateak parte hartu du.</li> <li>• Prozesua Berdintasun Kontseiluan aurkeztu da.</li> <li>• Udal Teknikariek “Berdintasuneko filtroa gaitzen al du?” galderari erantzun behar zioten: Proposamen guztiek (bozketara pasa zirenak eta besteek) betetzen zuten baldintza hori.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Aurrekontuak</li> <li>• Partaidetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 15 lan-saio</li> <li>• Proposatzaileen %45 emakumeak</li> <li>• Berdintasuna gaitzat zuten proposamenen artean 9tik 4 onartu dira</li> </ul>
1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostiako Udalaren 2020ko aurrekontuetan berdintasunerako berriaz sartutako kontusailen betetze mailaren azterketa egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2. kapituluko kontusail espezifikoetan egindako gastuaren betetze maila (Berdintasuna izan ezik): %73,4</li> </ul>
1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2020-2023ko plan berria onartu da.</li> <li>• Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa eguneratzea eta komunikatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen zuzendaritza</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2 tresna berri</li> </ul>

## 2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, bi azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 3 neurriari heltzea, baina **ez da hasi**. Hala ere, Berdintasun Unitatean praktikak egin dituen ikasle batek interseksionalitatea integrazeko moduari buruzko dokumentu bat aurreratu du, proiektu honetarako lanerako oinarri gisa erabili ahal izango dena.

JARRAIPENA	INTERSEKZIONALITATEA DEFINITZEA	EZ-BITARRAREN LAUKIA
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	2.1. Interseksionalitatezko esperientziak identifikatzea. 2.2. Interseksionalitateari dagokionez, zein aldagai landuko diren erabakitzea.	2.6. Zein dokumentu, estatistika eta ikerketetan sartu den identifikatzea.
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA	2.3. Martxan dauden zenbait proiektu identifikatzea eta interseksionalitatearen ikuspegia txertatzea. 2.4. Interseksionalitatearen garrantzia eta onurak zabaltzea eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileak trebatzea. 2.5. IV. Plana berrikustea, aldagai hauek kontuan izanda.	2.7. Ez-bitarraren laukia sartzearen ondorioak: onurak, zailtasunak... identifikatzea. 2.8. Txosten bat egitea irizpide teknikoak luzatuz.

### 3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA

Proiektu honek 6 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 4 neurriari heltzea. **Aurreikusitako 4 neurrietatik 2 jorratu dira (%50)**

JARRAIPENA	BERDINTASUNERAKO EGITURA	ARAUDIA	KOMUNIKAZIOA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	3.3. Berdintasuneko pertsonalaren beharrak diagnostikatzea. Berdintasun Unitatea handitzea eta/edo sailetako berdintasunerako erreferenteak sortzea baloratzea. Horren arabera, lanpostu berriak sortzea.  3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferenteak sortzea.		
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA		3.5. Berdintasunerako Ordenantza onartzea.	3.6. Berdintasun Saileko eta Emakumeen Etxeko komunikazio plana gauzatzeko baliabideak bideratzea.
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA	3.1. Udalaren organigraman Berdintasun Unitatearen kokapena aztertzea, Berdintasun Unitatearen forma egokiena (Unitatea, Zuzendaritza, Zerbitzua...) erabakitzeko.  3.2. Egituran, Emakumeen Etxea ikusaraztea. Adibide moduan, "Berdintasuna eta Emakumeen Etxea" zerbitzua/zuzendaritza...		

Jorratutako neurri bakoitzerako, garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira taula honetan.

JORRATUTAKO NEURRIAK	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
3.3. Berdintasuneko pertsonalaren beharra diagnostikatzea. Berdintasun Unitatea handitzea eta/edo sailetako berdintasunerako erreferenteak sortzea baloratzea. Horren arabera, lanpostu berriak sortzea.	Berdintasun Unitateak langileen barne-egoeraren azterketa egin du.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 langile egonkor berrien beharra aurreikusi da</li> </ul>
3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferentea sortzea.	Beraien entitateko Berdintasunerako I. Plana garatzeko, Berdintasun Batzorde bat sortu dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Donostia Turismo</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzordearen osaera: 4 emakume, 1 gizon</li> <li>4 bilera</li> </ul>

GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Kontratazioan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan klausula sozialak sartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostia Kirola: Emakumezkoen goi-mailako talde guztiak ez ohiko dirulaguntza bat jasotzen dute eta kluban artean banatzen diren dirulaguntzetan nesken lizentziak gehiago baloratzen dira. Kirol pisten erreserba emateko arautegian ere, lehentasuneko irizpideak daude sartuta.</li> <li>• Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak. Interes bereziko lerroa. Emakumeen Ahalduntzea eta genero ekitatea sustatzea .</li> <li>• Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako dirulaguntzak. Interes bereziko lerroa. Emakumeen Ahalduntzea eta genero ekitatea sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostia Kirola</li> <li>• Musika eta dantza eskola</li> <li>• Euskara</li> <li>• Lankidetzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun klausulak txertatuta dauzkaten kontratuak: 2</li> <li>• Berdintasun klausulak txertatuta dauzkaten dirulaguntzak: %80</li> <li>• Berdintasun klausulak txertatuta dauzkaten hitzarmenak: %60</li> <li>• Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak: onuradunen %67 emakumeak.</li> <li>• Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako dirulaguntzak: onuradunen %65 emakumeak.</li> </ul>
2. “Udal Aurrekontuen analisia, genero ikuspegitik” txostena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtean zehar, Aurrekontuak eta Berdintasunak batera egin dute aurrekontuen analisiaren prozesua eta txostena egin ondoren amaitu da.</li> <li>• 2022ko aurrekontu onartuaren analisi txostena egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontuak</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	
3. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arauak egiten dituzten sailek generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiten dituzte.</li> <li>• Berdintasun sailak egiaztapen-txostenak egiten ditu, ekarpenak eginez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Hirigintza</li> <li>• Musika eta dantza eskola</li> <li>• Ongizatea</li> <li>• Suhiltzaileak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 15 arauen generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio egin dira.</li> </ul>
5. Berdintasunerako prestakuntza jasotzea eta antolatzea Udal Formazio Planean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa hirigintza proiektuetan.</li> <li>• Sexu jazarpenaren ikerketarako batzordearen formazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza</li> <li>• Pertsonen zuzendaritza</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal langileei eskainitako berdintasunaren inguruko 2 ikastaro.</li> <li>• 40 ordu</li> </ul>



**GOBERNU ONA: TXERTATUTAKO NEURRIAK**

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
11. Berdintasunerako Planaren jarraipena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako IV. Plana batzorde tekniko eta batzorde politikoari aurkeztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3 lan-saio</li> </ul>
12. Ikasle eta ikertzaileen elkarrizketei erantzutea berdintasun proiektu eta ikasketetarako.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasun Unitateko teknikariek ezaugarri hauek jasotzen dituzten eskaera guztiei erantzuten diete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasun proiektu eta ikerketak egiten ari diren ikasle eta ikertzaileekin elkarrizketa kopurua: 20</li> </ul>
13. Hiritarrak egiten dituzten eskaerak, kexak eta gomendioak erantzun.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasun Unitateko teknikariek «Herritarren Postontzia» webgunearen bidez iristen diren kontsulta guztiei erantzuten diete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzundako kexa eta iradokizunak: %100</li> </ul>

ESKU-HARTZE ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

**4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA**

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, bi azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 6 neurriari heltzea eta **6ak jorratu dira (%100)**.

JARRAIPENA	ESTRATEGIA	ERAGINA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	4.1. Kogestio egitura indartzea. 4.3. Udal kudeaketa tresnetan Emakumeen Etxea txertatzea. 4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea. 4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...	4.6. Emakumeen bizitzan Emakumeen Etxeak duen eraginari buruzko ikerketa egitea. 4.8. Udal langileekin Emakumeen Etxearen erabilera eta deribazioa lantzeko saioak egitea.
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA	4.2. Espazio berri eta handia lortzea, espazio-denbora-edukietan irisgarria izango dena.	4.7. Emakumeen Etxean egiten den lanaren balio ekonomikoa aztertzeko ikerketa egitea.

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
4.1. Kogestio egitura indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi hilean behin, Berdintasun Unitatearen eta Emakumeen Etxea Elkartearen artean bilerak antolatzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5 kogestio bilera</li> </ul>
4.3. Udal kudeaketa tresnetan Emakumeen Etxea txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen Etxearen zerbitzu-gutuna egiten ari da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Lehendakaritza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3 bilera</li> </ul>
4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-basea diseinatu, garatu eta abian jarri da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Donostiatik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 4 bilera.</li> </ul>
4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-basea (4.4.neurria) egin eta gero, datuak askoz hobeto jasotzen dira eta memoria ere hobetu egin da. Horren ondorioz, zerbitzu eta baliabideen jarraipena erraztu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	
4.6. Emakumeen bizitzan Emakumeen Etxeak duen eraginari buruzko ikerketa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen etxearen zerbitzu-gutuna (4.3.neurria) egiteko inkesta bat egin zen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 60 emakumek ikerketan parte hartu dute</li> </ul>
4.8. Udal langileekin Emakumeen Etxearen erabilera eta deribazioa lantzeko saioak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez da saio espezifikorik egin, baina prestakuntza ematera eta gainbegiratzeak egitera etortzen direnean, Etxea ezagutzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 30 langile etorri dira etxea ezagutzera</li> </ul>

## 5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA

Proiektu honek 10 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen denei heltzea eta **6 jorratu dira (%60)**.

JARRAIPENA	NESKA ETA EMAKUMEEN GAZTEENTZAKO PROGRAMAK	EMAKUMEAK, SOLASKIDE	EKIALDEKO BARRUTIKO BERDINTASUNERAKO PLANA EGIN
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea.	5.4. Udalaren diru-laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertzea. 5.6. Emakumeek edo emakume-elkarte nagusiek beste Departamentu batzuek bultzatutako prozesuetan parte har dezaten proposatzea. 5.7. Udal-kontseiluetako urteko plangintzan genero ikuspegia txertatzea.	5.9. Ekialdeko Barrutiko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa osatzea. 5.10. IV. Planaren egokitzapen bat lantzea.
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA	5.2. Hezkidetzarako patioak. Ikastetxeetako patioetan Udalak hobekuntzak eta mantenu lanak egiten dituenean, genero ikuspegia txertatzea (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol praktika anitzak egitekoak...).	5.3. Berdintasunerako diru-laguntzen oinarriari buruz hausnartzea: publiko objektiboa, puntuazio-irizpideak... 5.5. Diru laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertu eta gero, jasotzen diren datuak berrikustea. 5.8. Emakumeek Udalari aurkeztutako eskaerak aztertzea (kexak, iradokizunak) eta dagozkien departamentuko kudeaketa-planetan sartzea.	

Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria matxista nerabezaroan jardunaldiak.</li> <li>• Kontadores laborategiak / Zuriñe Hidalgo eta Twerking, sexualitatea/gorputza tailerrak 18-30 urte bitarteko emakumeentzat</li> <li>• Kontadores eszena , Erradikalak giñen ikuskizuna</li> <li>• Martx up/ gazte ekintzaileei zuzendutako programa. Generoaren dikotomia apurketarekin lan egiten duen proiektu bat hautatu zen.</li> <li>• Inspira Steam: LH 5eko 5 ikastetxeetan lan-saioak.</li> <li>• Bullingari buruzko mikroantzerkia: DBH 1eko 27 taldetan saioa+tailerra</li> <li>• Ok Parekide egitasmoa: LH6ko 9 taldetan saioak.</li> <li>• Emakume zientzialarien argitan jardunaldia E. Lluch K.E.-n.</li> <li>• Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 17 ekitaldi antolatu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteria</li> <li>• Hezkuntza</li> <li>• Berdintasuna</li> <li>• Donostia Kultura</li> <li>• Giza Eskubideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 4 programa sortu dira</li> <li>• 59 lan-saio</li> <li>• 100 neska eta emakume gaztek hartu dute parte</li> </ul>
5.4. Udalaren diru-laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2021 urteko deialdiko eskaeren datuak jasota daude.</li> <li>• Ohiko klausulak daude dirulaguntzetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaidetza</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuneko fitxa jasotzen duten dirulaguntzak: %100.</li> <li>• Fitxa hauen %0 aztertu da.</li> </ul>
5.6. Emakumeek edo emakume-elkarte nagusiek beste Departamentu batzuek bultzatutako prozesuetan parte har dezaten proposatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2021 urteko Partaidetza prozesuetan emakumeen elkarteei parte hartzeko aukera eman zitzaien beste elkarteei bezala, baina ez zen espreski emakume elkarerik gonbidatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaidetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaileen %10a emakumeak dira</li> </ul>
5.7. Udal-kontseiluetako urteko plangintzan genero ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontseiluetako Idazkariekin egiten den bileren gai ordenetan zerrendatuta zegoen genero ikuspegia lantzea berdintasun plana ardatz izanik, baina aktan ez da ageri landu denik.</li> <li>• Aurrekontu parte-hartzaileen gaia kontseilu guztietan aipatu behar zela adostu zen, Berdintasun kontseiluan barne.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Partaidetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunekin lotutako ekintza 1</li> </ul>
5.9. Ekialdeko Barrutiko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa osatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diagnostikoa egin da, bertsio luzea eta motza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekialde Barrutia</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	
5.10. IV. Planaren egokitzapen bat lantzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• I. Berdintasunerako Planaren diseinua martxan jarri da.</li> <li>• Jabekuntza eskola martxan dago (Emozioen kudeaketa, online bilerak, arte feminista, batukada).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekialde Barrutia</li> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5 neurri aukeratu dira</li> </ul>

## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Kanpainak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen astea Intxaurrondo eta Altzako Kultur Etxeetan.</li> <li>Gure ahotsak emanaldia VEAn.</li> <li>Emakume idazleen mundu bat San Telmo eta liburutegi zerbitzuak antolatuta</li> <li>Hainbat erakusketa Aiete K.E.n</li> <li>Emakumeen egunaren inguruan, Estatuko hiriburuetan emakumeen eliteko kirola alderatzeko azterlan bar argitaratzen dute. Hori guztia urtean zehar sustatzen da, #GoazenNeskak <i>hashtag-a</i> duten sare sozialetako mezuekin.</li> <li>Emakumeak ikusarazteko kanpaina: 8 emakumeen atrilak eta eskultura bat jarri dira Ekialde barrutiko auzoetan</li> <li>Emakume Sahararren Murala Zaharberritzea</li> <li>Nazioarteko argazki lehiaketa: "Mundu arteko begiradak"</li> <li><i>Podcast</i>-ak "Munduko ahotsak-Voces del mundo"</li> <li>Ekainak 28: Adierazpen instituzionala, alfonbra udaletxean, musukoak, Dbus, Kursaal...</li> <li>Giza Eskubideen zinemaldia: 3 erakusketa (Jane Goodall, investigadora y activista por la paz; Mujeres en lucha; La mirada cercana)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Musika eta dantza eskola</li> <li>Donostia Kultura</li> <li>Donostia Kirola</li> <li>Ekialde Barrutia</li> <li>Lankidetzeta</li> <li>Giza Eskubideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>204.989.60 €</li> <li><i>Podcast</i>-en protagonisten %80a emakumeak dira.</li> </ul>
2. Diru-laguntzen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat dirulaguntzen deialdia atera da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bideratutako diru kopurua: 82.000,00€</li> <li>33 elkartek jaso dute</li> </ul>
3. Emakumeen Etxeko eguneroko kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen Etxean eskaintzen diren zerbitzu, ahalduntze talde, tailer eta ekintzak garatzeko lana egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> <li>Kultur Aniztasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>16 elkargune eta zerbitzu aktibo</li> <li>1.656 emakumek hartzen dute parte topagune eta zerbitzuetan</li> </ul>
4. Beste Emakumeen Etxekin sare-lana	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen Emakumeen Etxeen sarean parte hartzen da. Aurten landutako gaia indarkeria izan da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 bilera</li> <li>1 proiektu</li> </ul>

**EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: TXERTATUTAKO NEURRIAK**

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
5. Emakumeak eta Hiria Foroa dinamizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekialde Barrutitik bisita gidatua antolatu da.</li> <li>• Bi hilean behin lan-saio bat egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 6 bilera</li> <li>• 2 ekimen</li> </ul>
6. Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua dinamizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun kontseilua bi hilabetero biltzen da, bertan Donostiako Emakume Elkarreak, talde feministak, sindikatuak eta alderdi politikoak daude ordezkaturak, udalaren berdintasun politiken jarraipena egiten da eta hobekuntzak edo lanketarako gaiak proposatzen dira. Gai esanguratsuekiko Kontseiluaren izenean Adierazpenak onartzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5 bilera</li> <li>• 2 ekimen</li> </ul>
7. Dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta kontratuetan berdintasunerako klausulak sartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Eskubideen diru laguntzak. Proiektuak: Emakumeak borroka antifrankistan, Gladys del Estali omenaldia, Gehitu Magazine, Sexu-aniztasuna kulturartekotasunetik sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Eskubideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Eskubideen diru-laguntzak: 29 proiektutatik 4 genero dibertsitateari eta emakumeei lotuta</li> </ul>

**ESKU-HARTZE ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK**

**6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA**

Proiektu honek 11 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 5 neurriei heltzea eta **3 jorratu dira (%60)**.

JARRAIPENA	AUTODEFENTSA FEMINISTA	ADINEKO EMAKUMEAK	DETEKZIO GOIZTIARRA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan. 6.2. Indarkeria saihesteko <i>pack</i> bat garatzea ikastetxeentzat: autodefentsa nesKentzat eta maskulinitateak mutilentzat.		6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea.
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA		6.4. Adineko emakumeentzako dauden programetan sentsibilizazio espazioak sortzea: informazio guneak, kafeak...	
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA	6.3. Prestatzaileen prestakuntza antolatzea, talde autonomoak sortzeko.		



Taula honetan jorratutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORRATUTAKO NEURRIAK	JORRATUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>2021ean 2019 formatuarekin jarraitu da, ez da formatu aldaketarik egon eta lauhilabetero, udaberri, udara eta udazkenean gaztelaraz eta euskarazko saio bana eskaini dira.</li> <li>2022ra begira adin eta profil desberdinekoei nola luzatu eskaintza hausnartu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>6 tailer</li> <li>55 emakumek hartu dute parte</li> </ul>
6.2. Indarkeria saihesteko <i>pack</i> bat garatzea ikastetxeentzat: autodefentsa neskentzat eta maskulinitateak mutilentzat.	<ul style="list-style-type: none"> <li>LH-ko sexu hezkuntza saioak: LH 6ko 8 taldetan saioak.</li> <li>EHIERA Lauzetan prebentzio programa, bi ikasturtetan gauzatzekoa.</li> <li>Ikertze: Hip Hip Hurri Diru laguntza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteria</li> <li>Berdintasuna</li> <li>Hezkuntza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxe 1</li> <li>100 neskek hartu dute parte</li> <li>100 mutilek hartu dute parte</li> </ul>
6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Indarkeria prebenitu edo atzemateko egindako ekintza guztiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>20 ekintza.</li> </ul>

## 7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA

Proiektu honek 10 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 8 neurriari heltzea.. **Aurreikusitako 8 neurrietatik 3 jorratu dira (%37,5).**

JARRAIPENA	ERREPARAZIOA DEFINITZEA	ESKU-HARTZE PROZESUA BERRIKUSTEA, ERREPARAZIOAREN IKUSPEGITIK	ERREPARAZIO SINBOLIKOA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	7.1. Barne hausnarketa egitea erreparazioari buruz.	7.3. Indarkeria matxistaren kontrako udalaren erantzukizuna eta ekimenak erreparazio ikuspuntutik berrikustea.	7.7. Ahalduzko fisikoko programak eskaintzea.
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA			7.5. Espazio publikoetan erreparazioa egitea. 7.6. Indarkeriari aurre egin dioten emakumeak indarkeria matxistaren aurkako udal politikan eragile aktiboak izatea. 7.8. Adierazpen eta harreman publikoetarako protokoloa osatzea eta aplikatzea. 7.9. Klean egiten diren gaitzespen adierazpenak Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin eta Mugimendu Feministarekin koordinatzea. 7.10. Jaietan mugimenduen sozialen, elkarten, udalaren eta bestelako instituzio batzuen artean informazioa partekatzeko eta esku-hartzeak kudeatzeko krisi mahai bat sortzea.
2020-2021ERA KO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA		7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea.	
2020-2021ERA KO PLANIFIKATU GABEA		7.2. Emakumeen Etxean egiten dena ikusaraztea, eredu gisa balio dezan.	

Taula honetan jorrotutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORROTUTAKO NEURRIAK	JORROTUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
7.1. Barne hausnarketa egitea erreparazioari buruz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Biktimak diren amak/semi-alabak, genero-indarkeriatik bizirik atera direnak jardunaldiak antolatu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizartekintza</li> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 lan-saio</li> <li>30 emakume eta 2 gizon</li> <li>6.334,00 €</li> </ul>
7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Abegi Etxeko langileentzat indarkeria matxistako egoeren prebentzioa eta arretari buruzko prestakuntza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizartekintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>6 gizon eta emakume 1</li> <li>1.999,80€</li> </ul>
7.7. Ahalduntze fisikoko programak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segi ezan programa garatzen da: ariketa fisiko bitartez jabekuntza, indarkeria matxista aurre egiten duten emakumeentzat.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>50 emakumek hartzen dute parte</li> </ul>

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: TXERTATUTAKO NEURRIAK

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Indarkeriaren kontrako kanpainak antolatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beldur Barik programa</li> <li>A25. Babestu zure perfila sareetako matxismoaren kontrako musuko morearekin</li> <li>Eraso sexistarik gabeko hiri baten alde</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteria</li> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3 kanpaina</li> <li>Eragina izan du 100.000 pertsonengan</li> </ul>
4. Indarkeria matxistaren kontrako prestakuntza Udal Formazio Planean	<ul style="list-style-type: none"> <li>Indarkeria matxistari aurre egiteko 2021ean ondoko sail edo pertsonekin egin ziren formazio saioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte langileekin kasuak hobetzeko gainbegiraketa.</li> <li>Udaltzaingoan: Nola artatu eraso sexuala jasan duen emakumeak</li> <li>Konplexua lantzen Jardunaldia. Indarkeria matxistaren egoera konplexuak abordatzen, emakumea- ama, seme alabak indarkeria matxistaren biktimak, nola bizi dituzte indarkeria egoerak (Gizarte langileak, Udaltzainak, Berdintasun teknikariak eta Emakumeen Etxeko zerbitzuetako adituak)</li> <li>Indarkeria matxistaren kasuei atentzioa hobetzeko (Udal gobernua eta Berdintasun kontseilua)</li> <li>Gizonduz : Mugikortasuneko agenteak</li> <li>Indarkeriari aurre egiten dieten emakumeei artatzeko tresnak hobetzeko formakuntza, Emakumeen etxeko harrerako langileak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaltzaingoa</li> <li>Berdintasuna</li> <li>Gizartekintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>6 ikastaro</li> <li>56 emakume eta 47 gizonen parte hartu dute</li> </ul>
5. Puntu Kritikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gomendio txostenak egin dira: Blas de Otero plaza, Morlanseko tunela.</li> <li>Carlos I-ko muralaren hobekuntza.</li> <li>Herrerako geltokiaren obrak kontrastatuta.</li> <li>Iztueta obrak martxan daude.</li> <li>Puntu kritiko guztien balorazio teknikoa egin da eta maila politikori helarazi.</li> <li>Gonzaga plazako trenbide azpia hobetzen hasi da.</li> <li>Gazteei zuzendutako difusio ekimena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Puntu kritikoen taldea</li> <li>Mugikortasuna</li> <li>Proiektu eta obrak</li> <li>Mantenimendua</li> <li>Partaidetza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>6 eskuhartze</li> </ul>

**ESKU-HARTZE ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO**

**8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK**

Proiektu honek 8 neurri jasotzen ditu, hiru azpiproiektutan sailkatuta. 2020rako eta 2021erako aurreikusita zegoen 5 neurriari heltzea eta **3 jorratu dira (%60)**.

JARRAIPENA	ZAINTZEN PLANA	TALENTU EZKUTUA AZALERATU	BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA SOLDATA ARRAKALA
AURREIKUSIA ETA JORRATUA	8.1. Zaintzen Talde Motorra sendotzea.	8.3. Tituluaren eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea.	8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea.
AURREIKUSIA ETA JORRATU GABEA			8.7. Udalak eta udal enpresek soldata arrakalari ekitea. 8.8. Hiriko soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea kategoria ezberdinak gurutzatuz.
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA BAINA JORRATUA	8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea.	8.5. Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko.	
2020-2021ERAKO PLANIFIKATU GABEA		8.4. Egindako ikasketen ibilbide profesionalari berriro heltzeko proiektua martxan jartzea.	

Taula honetan jorrotutako neurri bakoitzerako garatutako ekintzak eta jarraipen-adierazle nagusiak jasotzen dira.

JORROTUTAKO NEURRIAK	JORROTUTAKO EKINTZAK/DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
8.1. Zaintzen Talde Motorra sendotzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldea dinamizatzeko laguntza teknikoa kontratatu da.</li> <li>Talde motorea sendotzeko elkarte berriak gonbidatu dira bertaratzera eta parte hartzen hasi dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zaintzen Talde Motorraren 4 lan-saio</li> <li>Zaintzen Taldeak bultzatutako ekintza 1</li> </ul>
8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kristina Enea eta Donostiako Emakumeen Etxeak ekofeminismoari buruzko mintegi bat antolatu dute, Yayo Herrero Lópezekin. Seminario honetan oinarrituta, apunte-koaderno bat argitaratu dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kristina Enea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>343 kide (Ekofeminismoari buruzko mintegian)</li> <li>1.891,00€</li> </ul>
8.3. Tituluen eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen Etxean hurrengo zerbitzua eskaintzen da: "Iguálate", ikasketak homologatzeko laguntza atzerrian egindako ikasketen tituluak balioztatzeke aholkularitza eta laguntza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>407 emakumek jaso dute aholkua tituluak homologatzeko</li> <li>135 emakumek aholkua jaso dute profesionaltasun ziurtagirien inguruan</li> </ul>
8.5. Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteria saileko Martx-up programaren barruan ekintzaile talde bati aholkularitza eta kolaborazioa eskaini zaio, hirian klima aldaketaren inguruko erronkei aurre egiteko proiektu bat garatzen. Proiektuaren oinarrietako bat belaunaldi desberdinetako pertsonak elkartzea izan da, elkarrengandik ikasteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kristina Enea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>4 saio</li> <li>38 "+55" urte baino gehiagokoak</li> <li>32 gazte</li> </ul>
8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Donostia Turismoak bere Berdintasunerako I. Plana garatu du eta ezarpenari ekin diote.</li> <li>Sustapenak bere Berdintasunerako I. Plana garatu du.</li> <li>Donostia Kulturak bere Berdintasunerako II. Plana garatu du.</li> <li>Kristina Eneak bere berdintasun planaren ezarpenarekin jarraitu du. Legedi aldaketak kontuan izanda, hausnarketa eta ekintza zuzenduak egon dira plana egokitu behar ote duten jakiteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Turismoa</li> <li>Donostia Kultura</li> <li>Kristina Enea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2 plan berri</li> <li>39.696,85€</li> </ul>

**EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO: TXERTATUTAKO NEURRIAK**

NEURRIA	DESKRIBAPENA	PARTE HARTU DUTENAK	ADIERAZLEAK
1. Etxeko Langileei aholkularitza zerbitzua ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen Etxean eskaintzen den zerbitzua: eskubideak eta betebeharrak, soldata, kontratu mota, opor, egun eta ordu libre, kotizazio, baimen, kaleratzeen... inguruko aholkularitza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>200 erabiltzaile</li> </ul>
2. Donostia Lagunkoia, Plus 55 koordinazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>55 urtetik gorako pertsonen zuzendutako programetan genero ikuspegia txertatu eta emakumeei zuzendutako ekintzak zehazteko koordinazioa egin eta elkarlana sendotu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plus55rekin 2 koordinazio bilera</li> </ul>
3. Emakumeentzako enplegu-programak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeei zuzendutako enplegu, ekintzailatza eta talentuari eusteko proiektuak garatzeko diru-laguntzak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sustapena</li> </ul>	

Guztira, hauek dira esku-hartze ardatz eta proiektu bakoitzaren abordatze tasak:

ESKU-HARTZE ARDATZA	PROIEKTU-EMAITZA/TXERTATUTAKO NEURRIAK	Jorratutako/ Aurreikusitako NEURRIAK	ABORDATZE TASA
GOBERNU ONA	AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK	5/8	%62,5
	IKUSPEGI INTERSEKZIONALA	0/3	%0
	PLANAREN IRAUNKORTASUNA	2/4	%50
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	7/13	%53,8
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA	6/6	%100
	DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	6/10	%60
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	7/7	%100
INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	ERABATEKO PREBENTZIOA	3/5	%60
	ERREPARAZIO INTEGRALA	3/8	%37,5
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	3/6	%50
EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	3/5	%60
	TXERTATUTAKO NEURRIAK	3/2	%150

Gehien jorratutako ardatzak *Emakumeen Ahalduntzea* (%82,6) eta *Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko* (%85,8) dira. Proiektuen artean, nabarmentzekoak dira Emakumeen Etxe Handi, Anitz eta Koordinatuagoa (%100) eta Donostia, feminismoren aldeko hiria (%60) proiektuetako neurriak, eta bestalde, ez da Ikuspegi Intersekzionala proiektua lantzeko aurreikusitako neurririk hasi (%0).

Neurri integratuen garrantzia ikusi da baita ere. Berdintasuna bultzatzeko funtsezko neurri horiek, udalaren funtzionamenduan sistematizatuak daudenak, unitatearen eta gainerako sail eta enpresen denboraren eta baliabideen zati handi bat eskatzen dute. Proiektu eta neurri berriei ekiteko, aparteko baliabideak behar dira, eta hori ez da 2021eko errealitatea izan, Unitateak izan dituen baliabideak txikiagoak izan baitira.



## 3. GAKOAK-MUGARRIAK: ARRISKUAK ETA AUKERAK

- JARRAIPEN-TRESNA

Berdintasun Unitateak Midenet erabili du, gainerako sailetarako erabilgarri egon ez den tresna. Kasu honetan, Berdintasun Unitateak gerora jaso du informazioa, urtea ixterakoan, zenbait Excelen bitartez. Urte batean eta bestean jaso diren eremuak desberdinak izan dira, eta horrek datu batzuen azterketa orokorra egitea eragotzi du.

Hurrengo urteetarako, beharrezkoa ikusi da neurriak garatu ahala informazioa jasotzea, urte osoan zehar (adibidez, Berdintasun Unitatearen kasuan hilero, eta gainerakoek hiru hilean behin), eta nahitaezko jarraipen-eremuak identifikatzea: neurri bakoitzerako garatutako ekintzen deskribapena, adierazleak, dedikazio-orduak eta inbertitutako dirua, besteak beste.

- IV. PLANAREN EGITURA

IV. Plana 8 proiektu-emaiztan egituratu izanak planaren ezarpenarekin lortu nahi diren emaitza nagusietan arreta jarri nahi du. Erronka nagusiak agerian jartzea garrantzitsua bada ere, egitura horrek ez ditu behar bezala ikusarazten "neurri integratuak" izenekoak, funtsezkoak diren eta batez ere Berdintasun Unitatearen baliabide ekonomikoen zein dedikazio-orduen beharra duten neurriak.

Ardatz bakoitzean proiektu-emaizta bana gehitzea gomendatzen da, honela formulatu daitekeena: “(Ardatzaren izena) finkatu eta indartzea”.

- PLANAREN IRAUNKORTASUNA

Aurreko puntuari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren garapenak baliabideak areagotzea eskatzen du, proiektu berriak eta berdintasun-politika berriak bultzatu ahal izateko, eta aldi berean, aurreko plangintza-zikloetan hasitakoak indartu, sakondu eta sendotzeko. Plana ezarri den lehen urtean, Berdintasunerako Unitateak, Planaren ardura duen organoak, ez du izan baliabide pertsonal eta ekonomiko nahikorik berdintasun-politikak bultzatu ahal izateko.

Honi lotuta, plangintza eskura dauden baliabideetara egokitzea gomendatzen da. Berdintasunerako Unitatea indartu, aholkularitza juridikoa eta komunikaziokoa bezalako beste baliabide batzuk izan eta berdintasunera bideratutako aurrekontua handitzen den heinean, proiektu berriei ekin ahal izango zaie.

- FUNTZIOEN, PROIEKTUEN ETA ZEREGINEN BANAKETA

Berdintasun Unitateko langile baten irteerak, berak garatzen zituen proiektuak beste teknikari beteranoen artean lan banaketa eskatu du. Lanpostu hutsa bete denez eta irteeratik hilabete batzuk igaro direnez, interesgarria da banaketa profil desberdinetara zenbateraino egokitzen den baloratzea eta aldaketak egitea. Kasu batzuetan, proiektu estrategiko batzuetan, adibidez, interesgarria izan daiteke erantzukizuna gutxienez bi teknikariren artean partekatzea. Nolanahi ere, helburua, lana lantaldea osatzen duten pertsonen ongizatea eta osasuna aintzat hartuz garatzea da.

- PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Plana batzorde tekniko eta politikoan aurkeztu bada ere, ez da komunikazio-plan propiorik izan.

Jarraipenaren ondoren egin daitezkeen aldaketekin, komenigarria litzateke zenbait komunikazio-estrategia planifikatzea. Adibide gisa: langileei zuzendutako infografia, bilerak departamentu ezberdinetan...

- SAILEN ARTEKO EGITURA ETA ESPAZIOAK

Sailen arteko batzorde teknikoa, puntu kritikoen mahaia, klausulen taldea, hau da, sail ezberdinak biltzen diren languneak, oso interesgarriak dira berdintasun-politikak bultzatzeko, eta zeharkakotasunaren kultura lantzen laguntzen dute. Lan-formula hau beste neurri/proiektu batzuk bultzatzeko errepika daiteke.

Zeharkakotasunaren kulturari dagokionez, garrantzitsua litzateke gehiago lantzea eta bultzatzea, eta hori Lehendakaritzaren eskumen gisa ulertzen da eta hortan lanean daude.

- SOLASKIDETZA BERRIAK

Sailen arteko batzorde teknikoari dagokionez, sailen arteko solaskidetzetan aldaketak izan dira eta lan-aukera berriak sortu dira.

- LEGE-AGINDU BERRIAK

Azken urteotan, enpresentzako berdintasunaren arloko araudiak lan-ildo interesgarria ireki du enpresa publikoentzat, “Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko” ardatza indartzeko baliagarria dena.